




AITZIBER BASAURI

Balendi Berrio-Otxoak, urtero lez, hainbat jarraitzaile bildu zituan Elorrión.

Santu bizkaitar bakarra

BALENDIN BERRIO-OTXOA GOGOAN. Ehundaka jarraitzaile batu ziran atzo Elorrión, 1988an santu izendatutakoa gogora ekarri guran

Aitziber Basauri

Balendin Berrio-Otxoa Bizkaiko zaindaria —San Ignaziogaz batera bada be— ekarri eben gogora Elorrión. Urtero izaten dabe hitzordua, garagarriaren 4ean, elorriarrek eta bizkaitar askok 1988an santu izendatutakoagaz; eta, atzo be, ehunka jarraitzaile batu zan Balendin Berrio-Otxoa gogoratzeko asmoagaz. Aldarrietarako eguna be izan zan atzokoa. Izan be, Alderdien Legea dala-eta, alkarteratzea egin eben hainbat herritarrek, udaltxearen aurrean.

Sortzez Garbiaren basilikan ospatu eben Meza Nagusia; eta ohitureari jarraituta, agintariek kalejiran egin eben udaletxetik parrokiara arteko bidea. Halan-

dabe, Foru Aldundiko ordezkariak ez zan joan Elorrión. Bizkaiko gotzain laguntzaile Karmelo Etxenagusiak zuzendu eban mezea. Balendin Berrio-Otxoa gogoratu eban berak; eta elizan batutakoei «euren fedearen testigantzea» emoteko eskatu eutsen.

Igaz onartu eban Elizeak Berrio-Otxoa kofradiaren sorre-rea; eta dagoeneko 300 bat kidek osotzen dabe. Balendi Berrio-Otxoa Bizkaiko zaindaria bakar-izatea gura dau kofradiak; eta horixe da kofradiako kide izateko eskatzen daben baldintza bakarra.

Berrio-Otxoaren ganeko museoa barriro zabaltzeko eskaerea

Berrio-Otxoa gogora ekarteko asmoagaz, hainbat ekitaldi era-

tzen ditue, urtean zehar. Aurton be, literatuta lehiaketean antolatu izan dabe, eta «pozik» dagoz eukitako harrereagaz. Halantxe azaldu dau Kofradiako lehendakariak, Jose Maria Fernandez de Arroyabek. Bide beretik, Karmeldarren Santa Ana Konbentuan, Berrio-Otxoaren omeneko Museoa barriro zabaldu daien gura dabe. Aldundiak egitasmoaren zirriborroa eginda daukara adierazo dau Arroyabek, eta proiektua abiartzeko eskatu eutson Aldundiari.

Jai giroan igaro eben atzokoa eguna elorriarrek; trikitixea eta txistuaren doinuen laguntasunagaz. Meza nagusia amaitzean, luntxa euki eben Alkartu alkartean. Arrastian be, umeendako antzerkia eta pelota partiduak izan ziran, besteak beste.

IURRETA. Tabira-Garaizar zatia amaitu dabe

Gertu dagoz Durangaldeko ur-hornidura sarearen osatzen dabezan azken beharrak

A. B. |

Durangaldearen ur hornidura segurtetako azken beharrak inauguratu barri dabez: Tabira auzotik (Durango) Garaizargo ur-biltegira (Iurreta) artean doan eroanbide biko hodia, hain zuzen be. Holan, amaitutzat emon dabe Durangalderako ur-hornidura sare barria. Halantxe esan eben, atzo, Josu Bergara diputau nagusiak eta Ingurumen diputau Maria Esther Solabarrietak.

Ura bideratzeko hodia eregiteko —4.500 metro daukaz— 2.310.000 euro inbertidu dabez. Halandabe, 1990ean, Durangalderako ur-hornidura sarearen beharrak hasi ziranetik, guztira, ia 21 milioi euro gastau dabez. Josu Bergara diputau nagusiak beharron garrantzia na-

barmendu eban. «Batetik, Garaizargo edateko ura tratetako biltegian, Mañariatik datozen lurrazpiko ur baliabideak eukiteko aukerea izango dogulako. Eta, bestetik, Ermua eta Mallabiara artean doan hornidura sarera, edateko ura eroateko aukerea emongo dauelako».

Mañaria eta Oizko akuiferoetatik datozen lurrazpiko urak hartuko dauz, orain, ur-hornidura sareak. «Eta horrek, Durangalde osoko herrien ur eskerea asetzeko aukerea emoten dau», dino Bergarak. Azken «hobekuntzak» baino ez dirala falta argitu dau ingurumen diputatu Maria Esther Solabarrietak: Oizko ur-kaptazioak hobetzea, eta Garaizarko biltegia San Salbadoren (Abadiño) dagoanagaz lotzea, besteak beste.



AITZIBER BASAURI

Durangaldeko hainbat herritarren alkateak izan dira ekitaldian.

ZALDIBAR. Bertso jaialdia eta rock kontzertua gertau dabez, besteak beste

Herritarrek jai giroagaz bat egingo dabe gaur, ohiturako Donien Atxa igoteagaz batera

A. B. |

Donien Atxa igoteagaz batera hasiko dabez, gaur, Udako San Andres jaiak Zaldibarren. Atxa altzauko dabe 19:00etan, eta jarraian, txapligoa botako dabe udaletxetik, jaien hasikerea iragarteko. Txistulari eta buruhandiakaz kalejirea be egingo dabe.

Ohitureari jarraituta, odoloste jana eukiko dabe herritarrek Bekoetxe kalean, 20:30ean; eta bertso jaialdia hartuko dau Olazarpelotalekuak, 22:30ean. Igor

Elortzak, Jon Maiak, Leire Ostolazak, Nerea Elustondok eta Andoni Egañak jardungo dabe bertsoan. Gai jartzaile izango da, barriz, Natxi Aranburu. Rock kontzertuagaz agurtuko dabe eguna. Ekon eta Porretas taldeak eskainiko dabe kontzertua, Euskal Herria kalean, gauerdian.

Kirola eta umeendako jokuak

Biharko gertauteko ekitaldien artean, kirolak berezko presentzia izango dau. Izan be, mendi

ibilbidea egiteko hitzordua jarri dabe, Zaldia Elizateko plazan, 08:00etan. Boulder txapelketea izango da eskalatzeko lokalean 16:30ean; eta 17:15ean, profesionalen arteko pelota partidak jokatuko dabez Olazar frontoian, palaz eta eskuz. Umeendako ekitaldiak be izango dabe, baina euren tartean. Izan be, gazte-txoendako jokuak eratu dabez, udaletxeko plazan 16:00etarako; eta play back saioa egiteko aukerea be eukiko dabe, arratsaldeko 19.00etan.

AGENDA

DURANGO

Musika: Mariachi Real Santa Cecilia eskainiko dau, gaur, saioa Andra Mari eleizpean 22:30ean. Aurretik, 20:00etan, kalejirea egingo dabe Alde Zaharrean.

Erakusketea: Marta Cardenas pintore donostiarren beharrak ikusi leitekez Beitu Art Galleryn. Margolak hilaren 13ra artean izango dira bertan.

Erakusketea: Salvador, Nikaragua eta Guatemalako hainbat proiekturen ganeko argazki erakusketea ikusi leiteke, Berbaro taberna, Maider Alberdiren eskutik.

ELORRIO

Udako Jaialdiak: *Los comicos del carro* kale antzerkia eskainiko dau, gaur, Al Suroeste Teatrok. Eleizpean izango da 22:30ean. Euria bada Arriolan.

LAGURAEAN

ATXONDO

Kultur Astea abiatuko dabe gaur

Takolo, Pirritx eta Porrotx pailazoen 12:00etan eskaintako ikuskizunagaz abiatuko dabe, gaur, Kultur Astea Atxondon. Ganera, zine emonaldia be izango dabe 22:00etan. Biharko, barriz, kirol ekitaldia eratu ditue. Eskaladea praktiketako aukerea izango da, 09:30ean; eta 18:00etan, arku jaurtiketa. Kultur Astea, poesiaz agurtuko dabe, hilaren 13an. Vicente Morenoren eskutik, Udaletxeko batzar aretoan izango da saioa, 20:00etan.